


DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
CAPITALE EUROPÉENNE DE LA CULTURE
EUROPEAN CAPITAL OF CULTURE



DSS2016.EU

hitzargiak

Elkar argitzen duten hizkuntzak

Lenguas que se iluminan mutuamente

Des langues qui s'illuminent de l'une à l'autre

Languages illuminating each other



Informazio gehiago:

hitzargiak.eu



[#hitzargiak](https://twitter.com/hitzargiak)

Hitzargiak - Elkar argitzen duten hizkuntzak

DSS2016 Europako Kultur Hiriburuaren proiektua

Koordinazioa: Soziolinguistika Klusterra

Martin Ugalde Kultur Parkea,

Gudarien Hiribidea, 8,

20140 Andoain, Gipuzkoa

Tel: 0034-943592556

E-mail: hitzargiak@soziolinguistika.eus

Aurkibidea

Aurkezpena	4
Hizkuntzak	6
Jardunbideak gaika	12
Topaketa	22
Egitura	26



Zergatik Hitzargiak?

Hizkuntza-aniztasuna da Europako ezaugarri nagusia. Hala izan da iraganean, eta hala izaten jarraitzen du XXI. mende honen hasieran ere. Hizkuntzen arteko kontaktua, ordea, ez da sarri harreman orekatua izan; lurraldez lurralde, tokian tokiko hizkuntzak ahultze-prozesuetan murgildu dira, egoera zaurgarrian edota galtzeko arriskuan geratzeraino; Europako hizkuntza-aniztasuna ahultzeraino.

Ahultze-prozesuarekin batera, ordea, Europako hizkuntza- eta hiztun-komunitate ugari jakin dute euren hizkuntzen biziberritze-prozesu eraginkorrak abian jartzen; iraunkortasunaren ikuspegitik, helburu nagusitzat jotzen dute euren hizkuntza transmititzea, erabiltzea, hainbat esparrutara zabaltzea, egokitzea, eta egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat euren hizkuntza baliagarria, interesgarria eta atsegina izan dadin lortzea.

Hitzargiak – Elkar argitzen duten hizkuntzak proiektuaren bidez, hizkuntza horiei argi ematen dieten jardunbideak biltzen dira, eta hizkuntzen artean zubiak eraikitzen.

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuarekin bat

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburu Fundazioak misio bat bete nahi du: gure lurraldean eta European elkarbizitza-eredu berri bat sortzea, herritar guztion arteko harremanetan. Horretarako, zenbait erronka gainditzea jarri du helburu: elkarbizitzarako eta erlazionatzeko modu berriak ikertzea, desberdinak elkartzeko eta lankidetzak sortzeko, gauzak beste modu batera eginez.

Hitzargiak – Elkar argitzen duten hizkuntzak egitasmoa primeran lerratuta dago DSS2016Euren izaera eta balio horiekin guztiekin.



Zer da Hitzargiak?

Hitzargiak – *Elkar argitzen duten hizkuntzak* egitasmoak Europako hizkuntza-aniztasunaren alde egiten du, biziberritze-prozesuan murgilduta dauden hizkuntza- eta hiztun-komunitateen arteko harreman berriak sortu eta jadanik existitzen direnak indartuko baititu. Zenbat eta hizkuntza-komunitate gehiago aktibatu eginkizun honetan, orduan eta aukera gehiago izango da emaitza arrakastatsua izateko.

Hiztun-komunitateek erabili izan dituzten mota guztietako jardunbide egokiak ditu ardatz proiektuak. Jardunbide horiek berritzaileak, egokiak, arrakastatsuak edota eredugarriak dira, bai sortu dituzten komunitateentzat, baita beste hizkuntza- edota hiztun-komunitate hainbatentzat ere.

Jardunbide egokiak ezagutzeak ondorio biderkatzaileak izan ditzake: esperientziak partekatzeak, besteengandik ikasteak, elkar elikatzeak eta laguntzeak ekimenen arrakasta indartu dezake, eta, ikuspegi globala eta lokala uztartuz gainera, nazioarteko mugimendua sendotu.

Horrenbestez, jardunbide egokiak biltzea eta webgunean erakustea du helburu Hitzargiak proiektuak, bai eta hizkuntzak biziberritzen diharduten erakundeak elkarrekin harremanetan jartzea ere. Horretan du jarria arreta eta jomuga. Jardunbide egokiak argi gisa daude ikusgai mapa batean, dagokien hizkuntzaren eragin-esparruan kokatuta. Hizkuntzak biziberritzeko jardunbideak jaso ahala, mapan erakutsiz joango dira hizkuntza horiek, eta, hala, ikusiko da jardunbide bakoitza zer hedadurako hizkuntzan jarri den martxan.

**Hitzargiak –
Elkar argitzen
duten hizkuntzak
proiektua lagungarri
izango da Europako
hizkuntza-komunitateen
artean ezagutza eta
jardunbideak trukatzeko.**

Hizkuntzak

Egitasmo honetan ez daude jasota Europako eremu urriko hizkuntza guztiak. Hitzargiak egitasmoaren helburua hizkuntzak biziberritzeko martxan jarritako jardunbide egokiak bilatzea eta biltzea denez, halako jardunbideen berri jasotako hizkuntzak bakarrik jarri ditugu ikusgai.

Alsaziera

Familia: **Germaniar hizkuntzak**
Auto-glotonimoa: **Elsässerdtitsch**
Arrisku maila: **Zaurgarria** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)
Erakunde araugilea: **Ez du**



Aragoiera

Familia: **Hizkuntza latindarrak**
Auto-glotonimoa: **Aragonés, luenga aragonesa**
Arrisku maila: **Arriskuan** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)
Erakunde araugilea: **Academia de l'Aragonés**

Asturiera

Familia: **Hizkuntza latindarrak**
Auto-glotonimoa: **Asturianu**
Arrisku maila: **Arriskuan** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)
Erakunde araugilea: **Academia de la Llingua Asturiana**



Bretoiera

Familia: **Zelta**
Auto-glotonimoa: **Brezhoneg**
Arrisku maila: **Arrisku bizian** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)
Erakunde araugilea: **Ofis ar Brezhoneg**

Eskoziako Gaelikoa

Familia: **Zelta**
Auto-glotonimoa: **Gàidhlig na h-Albann**
Arrisku maila: **Arriskuan** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)
Erakunde araugilea: **Bòrd na Gàidhlig**



Euskara

Familia: **Isolatua**

Auto-glotonimoa: **Euskara**

Arrisku maila: **Zaurgarria** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Euskaltzaindia**



Frisiera

Familia: **Germaniar hizkuntzak**

Auto-glotonimoa: **Frysk**

Arrisku maila: **Arriskuan** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Fryske Akademy**

Friulera

Familia: **Latindar hizkuntzak**

Auto-glotonimoa: **Furlan, marilenghe**

Arrisku maila: **Arriskuan** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Agjenzie Regionâl pe Lenghe Furlane**



Galesera

Familia: **Zelta**

Auto-glotonimoa: **Cymraeg, Gymraeg**

Arrisku maila: **Zaurgarria** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Welsh Government / The Welsh language commissioner**

Galiziera

Familia: **Latindar hizkuntzak**

Auto-glotonimoa: **Galego**

Arrisku maila: **Segurua**

Erakunde araugilea: **Real Academia Galega**



Irlandako Gaelikoa

Familia: **Zelta**

Auto-glotonimoa: **Gaeilge**

Arrisku maila: **Arriskuan** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Foras na Gaeilge**



Jèrriais

Familia: **Erromantzea**

Auto-glotonimoa: **Jèrriais**

Arrisku maila: **Arrisku bizian** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Ez du**

Kashubiera

Familia: **Eslaviarra**

Auto-glotonimoa: **Kaszëbsczi, pòmòrszczi**

Arrisku maila: **Arrisku bizian** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Ez du**



Katalana

Familia: **Hizkuntza latindarrak**

Auto-glotonimoa: **Català**

Arrisku maila: **Segurua**

Erakunde araugilea: **Institut d'Estudis Catalans**

Kornubiera

Familia: **Zelta**

Auto-glotonimoa: **Kernowek, Kernewek**

Arrisku maila: **Egoera kritikoan** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Keskowethyans an Taves Kernewek**



Korsikera

Familia: **Latindar hizkuntzak**

Auto-glotonimoa: **Corsu, Lingua corsa**

Arrisku maila: **Arriskuan** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Ez du**



Kurduera

Familia: **Irandarra**

Auto-glotonimoa: **Kurdî, کوردی**

Arrisku maila: **Segurua** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Ez du**

Latgaliera

Familia: **Hizkuntza baltikoak**

Auto-glotonimoa: **latgališu volūda**

Arrisku maila: **Zaurgarria** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Ez du**



Manxera

Familia: **Zelta**

Auto-glotonimoa: **Yn Ghaelg, Yn Ghailck**

Arrisku maila: **Egoera kritikoan** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Coonseil ny Gaelgey**

Mirandesa

Familia: **Latindar hizkuntzak**

Auto-glotonimoa: **Lhéngua mirandesa**

Arrisku maila: **Arriskuan** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Anstituto de la Lhéngua Mirandesa**



Mocheno

Familia: **Germaniar hizkuntzak**

Auto-glotonimoa: **Mocheno**

Arrisku maila: **Arriskuan** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Ez du**



Okzitaniera

Familia: **Latindar hizkuntzak**

Auto-glotonimoa: **Occitan, Lengua d'òc**

Arrisku maila: **Arriskuan** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Ez du**

Sardiniera

Familia: **Latindar hizkuntzak**

Auto-glotonimoa: **Sardu, Saldu**

Arrisku maila: **Arriskuan** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Ez du**



Suediera (Äland Uharteak)

Familia: **Germaniar hizkuntzak**

Auto-glotonimoa: **Högsvenska**

Arrisku maila: **Segurua**

Erakunde araugilea: **Svenska språkbyrån**

Võro

Familia: **Hizkuntza uraldarrak**

Auto-glotonimoa: **võro**











Arrisku maila: **Arriskuan** (UNESCO Atlas of Languages in Danger)

Erakunde araugilea: **Ez du**























Jardunbideak gaika










LAN-ARLOA

JARDUNBIDEA	HIZKUNTZA	AZALPENA	SARE SOZIALETAN
Enpresarean	Euskara	Euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko harremana eta elkarlana sustatzen ditu.	 @enpresarean  Enpresarean
Euskara Merkataritzara Iruñerrian	Euskara	Iruñerriko saltokietan euskararen erabilera handitzeko programa da.	 @merkataritzara  Euskara Merkataritzara Iruñerrian
EIKA kooperatibako Euskara Plana	Euskara	Eika Etxebarraren helburu nagusia da lan- eta zerbitzu-hizkuntza euskara izatea eta inguruan eragile moduan jardutea.	 Eika
Measuring the Gaelic Labour Market	Eskoziako Gaelikoa	Gaelikoak Eskozian duen lan-merkatuari buruz egindako lehenengo azterketa sakona da hau, jakiteko zenbateraino erabiltzen den gaelikoa eta zein neurritan eskatzen den Eskoziako lan-merkatuan.	 @iaincaimbeul
Agasallo	Galiziera	onlineko plataforma bat da, galegozko opariak biltzen, zabaltzen, ezagutarazten eta gomendatzen dituena.	 @AgasalloEu  Agasallo.eu
Bilingualism for businesses	Irlandako Gaelikoa	Irlanderaz idatzitako kartelak ulergarriak direla eta irlanderak marketin-es-trategiari ekar diezazkiokeen onurak maximizatzen dituela ziurtatzeko beharrezko tresnak eskaintzen ditu.	 @gnoasgaeilge
EUSLAN Programa pilotua	Euskara	Euskaraz lan egitea helmuga duen bidean aurreratuen dauden enpresen artean ezagutza-trukaketa egituratzeko programa pilotu bat da.	
Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz	Euskara	Donostiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-sektorean bezeroei euskaraz hitz egiteko aukera ematen dieten establezimenduak identifikatzea eta establezimendu horien sustapena egitea da helburua.	 @euskaraz  Euskaraz
BIKAIN ziurtagiria	Euskara	Kalitate Ziurtagiriak enpresa nahiz erakunde batean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen du.	
Bai Euskarari Ziurtagiria	Euskara	Arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea da helburua, euskaraz lan eta bizi ahal izateko dauden espazioak identifikatzea, babestea eta gehiagotara zabaltzea.	 @baieuskarari  Bai Euskarari
Córas Creidiúnaithe d'Aistritheoirí	Irlandako Gaelikoa	Akreditazio-sistema bat da irlandarazko itzultzaileentzat; bikaintasun-estandarra eskuratzen duten itzultzaileei akreditazio-zigilu bat ematen zaie.	 @ForasnaGaeilge
Praat mar Frysk	Frisiera	Praat mar Frysk kanpaina frisiera sustatzeko kanpaina orokor bat da, 2007an hasia.	 @PraatmarFrysk  Praat mar Frysk












KOMUNIKABIDEAK / HIZKUNTZA-TEKNOLOGIA

JARDUNBIDEA	HIZKUNTZA	AZALPENA	SARE SOZIALETAN
A Piazzetta	Korsikera	Korsikeraz idatzitako lehenengo berri-papera da. Lehenengoa eta bakarra.	 @aPiazzetta  A Piazzetta
Uma Leht	Võro	Võro hizkuntzako egunkari bakarra da; 15 urtez argitaratu da.	 Uma Leht
Arredol	Aragoiera	Aragoierazko egunkari digital orokor bat da, Aragoiko eta munduko albis-teen aragoierazko argitalpen bat.	 @arredol  Arredol
AIZU! aldizkaria	Euskara	Oinarrizko euskaraz idatzitako aldizkaria da, euskara ikasten ari den edota euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duen oren lagungarri.	 @AIZUaldizkaria
Bisas de lo Subordán	Aragoiera	<i>Bisas de lo Subordán</i> aldizkariak bi helburu ditu: batetik, edukien berri ematea eta informazioa hedatzea, eta, bestetik, hizkuntza bera zabaltzea.	
OC Telé	Okzitania	Oc Telé Internet bidezko telebista bat da, okzitania hutsean.	 @ocele  @ocele
Iniciativa pol Asturianu	Asturiera	"Iniciativa pol Asturianu nes ondas" eta "Alderiques d'asturies" proiektuak biltzen ditu: "Iniciativa pol Asturianu nes ondas" irratsaio bat da, eta, "Alderiques d'asturies", berriz, hizkuntza nagusi asturiera duen onlineko lehen telebista-kanala da	 @IniciativaxAst  Iniciativa pol Asturianu
Radio Kaszëbë	Kashubiera	Misioa da tokiko loturak eraikitzea Itsaso Baltikoan dagoen Pomeraniako biztanleen artean, 500.000 kazubiar kulturalki eta etnikoki integratuz.	 @radiokaszebe
#Pigliatiqùè	Korsikera	Txisteak eta komikiak korsikeraz argitaratzen dituen orri bat da: Batzuetan, ateraldi sarkastiko edo umoretsuak dira; beste batzuetan, atsotitz eguneratuak.	 @pigliatiqùè  Pigliatiqùè
Tokikom	Euskara	Tokian tokiko euskarazko agerkariak sortzeko tresna propio bat da, software librean, etengabeko berrikuntza eta eduki-, inbertsio- zein teknologia-mailako saretzea helburu hartuta.	 @toki_kom
Behategia	Euskara	Unibertsitateen eta euskarazko hedabideen arteko elkarlana zentro duen ikerketarako eta hausnarketarako espazioa da.	
ElkarOla	Euskara	Ikerketa estrategikoko proiektu bat da, euskararentzako oinarrizko baliabide teknologikoak sortzea, eta baliabide horietatik tresnak eta aplikazioak garatzea helburu duena, euskara aro digitalean osasuntsu egon dadin.	 @ElhuyarIG  Elhuyar
Softaragonés	Aragoiera	Softaragonés lantalde bat da, eta haren helburua da teknologia berrietan aragoiera erabil dadin sustatzea.	 @softaragones  Softaragones
Huelha de rota tau desvolopament numeric de l'occitan	Okzitania	Okzitanierarentzako hizkuntza-teknologiak garatzeko programa planifikatu bat (2015-2019) idaztean datza.	 @locongres  Lo Congrès permanent de la lenga occitana
Itzultzaile automatikoa	Euskara	Ordenagailu-programa bat da, eta, haren bidez, testuak gaztelaniatik euskarara, euskaratik gaztelaniara eta ingelesetik euskarara itzultzen dira.	



















CORPUSA / AHOZKO ONDAREA

JARDUNBIDEA	HIZKUNTZA	AZALPENA	SARE SOZIALETAN
Euskal Herriko Ahotsak	Euskara	Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri-hizkerak katalogatu eta hedatzea da helburu nagusia	 @ahotsak  Ahotsak Ahozko Ondarea
Espace Ressources Sâmmle	Alsaziera	Alsazierazko dokumentu soinudunak eta bisualak zerrendatu eta Interneten jartzen dituen web-ataria.	 @ressources.sammle
Documental A memoria da lingua	Galiziera	Galizieraren memoria historikoari buruzko dokumental bat da.	 As candongas do quirombo
Guthan nan Eilean – Island Voices	Eskoziako Gaelikoa	Eskoziako Kanpoko Hebrideetako (Mendebaldeko uharteak) bizimoduaren eta lanaren adibideak grabatu eta bildu nahi ditu, batez ere hizkuntza-ikasleentzat.	 Island Voices – Guthan nan Eilean
Cumbeçon outográfica de la Lhêngua Mirandesa	Mirandesa	Hiztun, irakasle eta Portugalgo unibertsitate batzuetako hizkuntzalari batzuk lankidetzan aritu ziren mirandesaren ortografian konbentzio bat lortzeko.	 Universidade de Trás-os-Montes e Alto Douro
Bersntoler Kulturinstitut	Mocheno	Bersntoler Kulturinstitut möchenien hizkuntza eta kultura zaindu eta sustatzearaz arduratzen da.	
Portal das Palabras	Galiziera	Galizierazko lexikoa hedatzeko eta horretarako behar diren tresnak garatzeko plataforma bat da.	 @PortalPalabras  Portal das Palabras
Euskarazko Hiztegi Txikia	Euskara	Euskarazko oinarritzko hainbat hitz eta esaldi bildu dira Donostiara etortzen den bisitariak ezagutu eta erabili ditzan.	
Euskaltzaindia	Euskara	Euskaraz arduratzen den erakunde ofiziala da; mintzaira horri buruzko ikerlanak egiten ditu, eta hizkuntzaren normalkuntzarako arauak eman ditu.	 @plazaberri



















ERABILERA / KULTURA

JARDUNBIDEA	HIZKUNTZA	AZALPENA	SARE SOZIALETAN
Uma Pido	Võro	Kantu- eta folk-jaialdi bat da, Võrun inspiratua, eta habitat tradizionalen bizi den jendea eta beste norabait joan diren familiak eta jendea elkar-tzen ditu.	 UmaPido
Ceòlas Uibhist	Eskoziako Gaelikoa	Eskoziako hizkuntza eta kultura gaelikoaren aldeko jaialdi bat da, bai komunitateko kideentzat, bai eta hizkuntzarekin, musikarekin, abestiekin eta dantzarekin interesatuta daudenentzat ere.	 @Ceolasuist  Ceòlas
Upa-upa, ubinakõnõ	Võro	Tokiko jaioberri, adingabe eta haien gurasoentzako võrozko kantuen hiru-garren CDa da.	 Upa-upa ubinakõnõ
Cantalingua	Galiziera	Galegoz jarduten diren talde eta ba-klarlarientzako lehiaketa musikala da.	 @amesanl  @AMesaNL
Latgolys Studentu Centrs	Latgaliera	Helburua da gazteengan europar kontzientzia bultzatzea, eta haiei Lat-galiako eskualdeko ingurune kultural, ekonomiko eta sozialaren garapenean parte harraraztea.	 @lgsc.lv
Theatr Ieuentid Môn	Galesera	Haur eta gazteentzat aukera sozialak galesez eskaintzen ditu, trebezia berriak garatu ditzaten giro dibertigarri eta lagunkoi batean.	 @MenterMon  Menter Mon
Fèisean nan Gàidheal	Eskoziako Gaelikoa	Fèisean nan Gàidheal Eskoziako 47 Fèisean-en (arte gaelikoak irakasteko jaialdiak) laguntza-sare bat da.	 @fngaidheal  Fèisean nan Gàidheal
Cultúrlann Uí Chanáin	Irlandako Gaelikoa	An Gaeláras kultura-erakundeak era askotako kultura-ekimenak antolatzen ditu Irlandako hizkuntza, kultura eta arteak sustatzeko.	 @culturlandoire  @culturlann
Kafe Antzokia	Euskara	Euskaldunon eta gure kultura-sorkuntzaren topalekua Bilbon.	 @kafeantzokia  Kafe Antzokia
Bocsŵn	Galesera	Musika- eta konposizio-jarduerak modu bikaina dira gazteak inspiratzeko beren gales-gaitasunak hobeto erabil ditzaten.	 @MenterMon  Menter Mon
Concurso literario Condau de Ribagorza	Aragoiera	Ribagorzako aragoierazko Condau de Ribagorza literatura-lehiaketa da: kontakizun laburren eta olerkien modalitateak daude	 @CulturadeGraus  Cultura de Graus
APEGO	Galiziera	Helburu nagusia da beren seme-alabei galegoa irakats diezaieten mezu positiboak eta egokiak ematea gurasoei, eta horretarako behar dituzten baliabideak ematea.	 Apego
Cressi cun plui lenghis	Friulera	Eleaniztasuna eta friuleraren erabilera bizitzeko bizitzako lehen hilabeteetatik, seme-alabei friuleraz hitz egitera bultzatzen ditu gurasoak.	 ARLeF
Xaldun Kortin, Jolastu gurekin!	Euskara	Nafarroan barrena jasotako ondarearen eta haur hizkeraren transmisioa belaunaldi berriei, gurasoen nahiz irakasleen bidez, errazteko proiektua da.	

ERABILERA / KULTURA

JARDUNBIDEA	HIZKUNTZA	AZALPENA	SARE SOZIALETAN
Edicions Transiberiano	Aragoiera	Irabazi-asmorik gabeko argitalpen-ekimen bat da, aragoierazko literatura-eskaintza handitzeko.	 @etransiberiano  Transiberiano
Sardegna Digital Library	Sardiniera	Sardiniako kultura-ondarearen balioa nabarmentzeko tresna da, bertako zein nazioarteko komunitatearentzat.	
Chornadas de Llenguas del Pirineu	Aragoiera	Jardunaldi horiek kapitulu zientifiko eta prestakuntzazkoa, sorkuntza literarioa sustatzea eta hedapena uztartzen dituzte.	 @CulturadeGraus  Cultura de Graus
Golden Tree Productions	Kornubiera	Konpainia bat da, kornubiera-hizkuntza ardatz duena, eta Kornualleseko berezitasuna eta aniztasuna ezagutarazten du kultur proiektuen bidez.	 @GoldenTreeUK  goldentree
Pirritx, Porrotx eta Mari Motots	Euskara	Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazotalde bat da, euskara eta alaitasuna uztarturik, urtero gai jakin bati lotutako balio eraikitzaileak jorratzen dituena.	 Pirritx Porrotx eta Marimotots
Clube da Lingua	Galiziera	Parte-hartze sozialeko proiektuak garatzen ditu hizkuntza-normalizaziorako, hala nola Regueifesta eta Tattoos da Galiza.	 clubeda.lingua
Gweithio'n Gymraeg	Galesera	Curriculumaz kanpoko jarduerak antolatzen zituzten, hizkuntza-klase gehigarriak eta galesezko egiaztagirak, galesezko hezkuntza jaso zuten gazteentzat	 @Urdd  Urdd Gobaith Cymru
Harrapazank	Euskara	Bilboko gazteentzako aisialdi-programazioa da, esperientzia positiboak euskaraz biziaraztea helburu duena.	 @Harrapazank_Fan  Harrapazank Bilbo
Gimcana de las lenguas	Katalana	Hizkuntza-dibertsitateari buruzko galderak erantzuteko ekintza, hezkuntza-maila eta adin guztietara egokitu daitekeena.	 @GELA1092
Oarsoarrak	Euskara	Oarsoaldean (Errenteria, Oiartzun, Lezo eta Pasaia) familia bidezko euskararen transmisioa sustatzeko ekimena da.	
GLISSEGUNA	Euskara	Seaska Elkarteak antolatzen duen eguna da, lerra kirolen eguna, haurrak euskaraz jostatzen ahal direla frogatzeko.	 Seaska
Numéribulle	Bretoiera	Liburu digitalak frantsesez, ingelesez eta bretoieraz eskaintzen dituen argitaletxea da.	
Application iYo	Alsaziera	80 esamolde baino gehiago jasotzen ditu, 4 kategoriatan banatuak, eta 4 pertsonak ahoskatzen dituzte.	 @olcalsace  Alsacien
Herrizki	Euskara	Tresna honen helburua tokiko euskara lantzea da, joko erakargarriak erabilia.	 @Artezeuskara  ArtezEuskaraZerbitzua












PENTSAERA / SENTSIBILIZAZIOA

JARDUNBIDEA	HIZKUNTZA	AZALPENA	SARE SOZIALETAN
Seminario aragonés de sociolingüística	Aragoiera	Aragoiko bi hizkuntza propio gutxituen, katalanaren eta aragoieraren, azterketan jarduten duten soziologoaren mintegi bat da.	
Esfendemos as luengas	Aragoiera	Aragoiko hizkuntza minoritarioen aurka egiten diren bidegabekeriak salatzen ahalegintzen da "Esfendemos as luengas" plataforma.	 @esfende_las  Esfendemos As Luengas
Ai'ta	Bretoiera	Ai'ta ! kolektibo militante bat da, eta desobediencia zibilaren teknikak erabiltzen ditu bretoierari leku handiagoa emateko gizaratean.	 @AitaBreizh
Club de debate	Galiziera	Eztabaida Klubaren helburu nagusia da ahalegina eta baliabideak koordinatzea ahozko galegoa sustatzeko DBHko 3. eta 4. mailako eta Batxilergo-ko 1. mailako ikasleen artean.	 @MocidadeDebate  Club de debate
Gústame o galego	Galiziera	Hizkuntzaren normalizazio-prozesuaren aldeko norbanakoen babesaren adierazten da; panelez osatutako photocall bat ekitaldiz ekitaldi eta herriz herri eramaten da.	 Gústame o galego
Como cho digo ;-)	Galiziera	Prensa idatzian galegoaren erabilera hobetzeko eta hizkuntza horretan idatzitako artikuluen kopurua areagotzeko kanpaina bat da.	 @comochodigo  Como cho digo ;-)
eusLiderrak	Euskara	Hizkuntza-portaera berriak sortzeko tailerra da; euskararen erabilera informala areagotzea du helburu, norbanakoen hizkuntza-jarreraren eraginez,	 @EuskalakariAEK  @aek.euskalakari
Na llingua de casa	Asturiera	Kanpaina honen helburua da astur-leonesa leku publikoetan ikusgarri jartzea, non gehienetan idatzizko komunikazio guztia gaztelaniaz egiten baita.	
Taller TELP	Katalana	Trebakuntza-ikastaro bat da, non psikologian oinarritutako zenbait tresnaren bidez hizkuntza-interakzio egoerei aurre egiteko baliabide batzuk eskuratuko ditugun.	 @gemmasangines
Glór na nGael Community Development	Irlandako Gaelikoa	Glór na nGael-ek hizkuntza familian, negozioetan eta enpresan eta komunitate-garapenean sustatzeko erantzukizuna du.	 @GlornanGael  Glór na nGael
Modelo Burela	Galiziera	Burela herriko Perdouro Institutuak hezkuntzaren arloko esku-hartze bat jarri zuen martxan (2004), eskola-komunitate osoari zuzendua, baina udalerrian eta eskualdean eragina duena.	 Modelo Burela
Cornish Language Programme	Kornubiera	Webgune batean, hizkuntza bultzatzeko ahalegin boluntario guztiak biltzen dira, hala nola filmak, irratia eta ikastaroei buruzko informazioa.	 @magakernow  MAGA - Sodhva an Taves Kernewek / Cornish Language Office
ELE	Euskara	Administrazio bakoitzaren eskumen esparruko plangintza tresnetan prebentzioaren ikuspegia txertatzeko, eragin linguistikoa ebaluatzen sistema bat da.	 @uema_eus  UEMA
Act on the Autonomy of Åland	Suediera (Åland)	Ålandeko biztanleen borondatearen kontra, erabaki zen Uharteek Finlandiaren zati izan behar zutela, baina autonomia zabala izan behar zutela.	






















PENTSAERA / SENTSIBILIZAZIOA

JARDUNBIDEA	HIZKUNTZA	AZALPENA	SARE SOZIALETAN
Ar Redadeg	Bretoiera	Errelebo-lasterketa bat da bretoiera nabarmentzeko, eta Britainiako zenbait lekutan jarduerak ere antolatzen dira.	 @Redadeg
Korrika	Euskara	Bi urterik behin egiten den ekimena da, euskararen lurraldearen luze zabaleran garatzen dena: Hamar egunean egiten den lasterketa erraldoia da	 @EuskalakariAEK  @aek.euskalakari
Rith	Irlandako Gaelikoa	Rith lasterketa herriko nazional bat da, Seachtain na Gaeilge-ko (irlandera-hizkuntzaren astea) ekitaldi nagusi bat.	 @Rith_Gaeilge  Rith
Ras yr Iaith	Galesera	25 hiri eta herritako guneak korrika zeharkatzean datza, Galeseko iparretik hegora.	 @RasyrIaith

HAUREN IRAKASKUNTZA

JARDUNBIDEA	HIZKUNTZA	AZALPENA	SARE SOZIALETAN
Gwynedd Schools' Language Charter	Galesera	Helburu nagusia da oinarriak ezartzea haurrek galesa erabil dezaten bultzatzeko, sustatzeko eta animatzeko.	
La Escolina	Asturiera	Asturiera ikasteko eta erabiltzeko jarduera bat da, 0 eta 6 urte bitarteko haurrentzat.	 Reciella
Raising Kurdish Children Multilingual	Kurduera	Ama hizkuntza debekatua duen estatuturik gabeko nazio handienean, ume koskorak kurdueraz mintzatzen hasi dira. Mintzatzen eta ikasten.	 @serifderince
L'Office du Jèrriais	Jèrriais	Lehen eta bigarren hezkuntzako eskolatan eta helduei jerseyera irakasteko programa bat da.	 @le_jerriais  L'Office Du Jèrriais
Rhieni Dros Addysg Gymraeg	Galesera	Gurasoen mugimendu bat da, kanpainan egiten duena Galesen hezkuntza elebiduna emango duen galeserazko eskola baten alde.	 @RhAGI  Rhieni Dros Addysg Gymraeg
Escolas de Ensino Galego Semente	Galiziera	Helburua da Galiziako Eskola Nazionala sortzeko behar diren oinarriak osatzea antzeko beste proiektu batzuekin batera.	 Semente Compostela
Seaska	Euskara	Euskararen erabilpena haurren antolaketa sozialaren bidez sustatzen duen ikastola.	 @seaskaikastola  Seaska
Stichting Ons Bildt	Frisiera / Bildt	20 bat lagunek boluntario gisa egiten dute lan bildts hizkuntzaren eta historiaren inguruan.	 Stichting Ons Bildt
Mam-migoù	Bretoiera	Haur-zaintzaileen etxe bat da, zeintzuek umeei elebitan egiten baitiete.	
Babigoù Breizh	Bretoiera	Lehen haurtzaroko zerbitzu bat da, bretoierako hizkuntz-murgilketa ardatz duena.	
RAMON BAJO Haur eta Lehen Hezkuntza Ikastetxe publikoa	Euskara	Auzo-eskola bat eraiki nahi izan da oinarri bezala hartuta haurren euskalduntzea eta auzoan dauden bizilagun guztien inklusioa.	
Escola La Sinia	Katalana	Ildo bikoitzeko eskola bat da, eta gizarte- eta hezkuntza-zerbitzua ematen die 18 hizkuntza-errealitate baino gehiagoko 415 haurri.	 @lasiniavic
Compartim Converses!	Katalana	Hizkuntza-bikoteak sortzen dituzte jolas-orduan, katalana erabiltzen ez duen ikasle baten eta katalan-hiztun baten artean.	

HELDUEN IRAKASKUNTZA

JARDUNBIDEA	HIZKUNTZA	AZALPENA	SARE SOZIALETAN
Irish-medium Teacher Education	Irlandako Gaelikoa	St Mary's University College Belfasteko goi-mailako hezkuntza-erakunde bat da, irlandarazko eskoletarako irakasleak trebatzen espezializatua.	
Welsh-medium higher education across Wales	Galesera	Coleg Cymraeg Cenedlaethol-ek Galeseko unibertsitateekin lan egiten du: Diruz laguntzen ditu galeseraz irakatsiko duten irakasleak/irakurleak, eta bekak eskaintzen dizkie ikasleei.	 @colegcymraeg  Coleg Cymraeg Cenedlaethol
Sabhal Mòr Ostaig	Eskoziako Gaelikoa	Ikasleek graduako eta graduondoko ikasketak osorik gaelikoz egin ditzaketen goi-mailako ikasketen erakunde bakarra.	 @SabhalMorOstaig  @sabhalmorostaig
Learn Manx - Ynsee Gaelg	Manxera	Manxera ikasteko Manx Gaelic aplikazioa helduentzat dugun hizkuntza-ikastaro arrakastatsuan oinarrituta dago.	 @CultureVannin  Culture Vannin
Escuela d'Aragonés Nogará	Aragoiera	Aragoiera-eskolak ematea du eginkizun nagusi Nogará elkarteak, batez ere jende helduari.	 @AC_Nogara  Nogará Religada
Trobada "Vivir en Aragonés"	Aragoiera	Aragoiera L1 gisa (ama-hizkuntza) duten pertsonen eta L2 gisa dutenen arteko 3-4 eguneko topagune bat da.	 Trobada - Vivir en Aragonés
Aprenem	Katalana	Hizkuntzak irakurriz eta hitz eginez ikasteko programa da, gramatikarik gabe eta hizkuntza-trukean oinarritua.	
Voluntariat per la llengua	Katalana	Programaren helburua da katalanezko mintzapraktikak egitea elkarrizketaren bidez.	 @vxlcat  Voluntariat per la llengua
Mintzanet	Euskara	Euskara on line eta doan praktikatzeko tresna bat da; euskara ongi dakien pertsona eta praktikatu nahi duena elkartzen ditugu.	 @mintzanet  Mintzanet
AEK	Euskara	Euskararen berreskurapena eta Euskal Herriaren berreuskalduntzea xede, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea jorratzen du.	 @EuskalakariAEK  @aek.euskalakari
Mintzapraktika	Euskara	Euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak ohiturarik ez dutenekin elkartzen dituzte mintzapraktika egitasmoek.	 @topagunea
EduBreizh	Bretoiera	Helduek bretoiera on line ikasteko plataforma bakarra da.	 @edubreizh  Edubreizh Edu
Corsi d'aranés	Okzitaniera / Aranera	Helduentzako ikastaroen helburua da jendartearen zati bat alfabetatzea, eta aranera bertakoa ez den populazioari ezagutzera ematea.	 @conselharan  Conselh Generau d'Aran
Tíralle da lingua	Galiziera	Ahokotasunari buruzko irakasleentzako trebakuntza-jardunaldi batzuk dira, bai eta ahoko kontakizunen lehiaketa bat ere Galizia osoko ikasleentzat.	 Asociación Socio-Pedagógica Galega
Võro-language immersion day	Võro	Hizkuntza-murgiltze programa inplementatzen laguntzeko ekimena da; hizkuntza eta kultura irakasteko laguntza eta aholkuak ematen dizkiete irakasleei.	

Topaketa



Hitzargiak Topaketa Europako hizkuntzak biziberritzen diharduten eragileak elkartzeko gunea izango da. Eragile horiek Hitzargiak proiektuan identifikatu ditugu hizkuntza gutxituak indartzeko jardunbide egokiak abian jarri dituztelako. Webgunean hasitako ibilbidean, geldione bat izango da Hitzargiak Topaketa, eragileek aurrez aurre elkar ezagutu dezaten.

Orain arte egindako lanaren erakusleioa izango da, batetik, eta ezagutza gizarteratzeko, esperientziak trukatzeko eta jakintza berria sortzeko gunea, bestetik. Azken batean, gune bat eskainiko die Europako hizkuntzak suspertzen diharduten eragileei lankidetzarako eta etorkizunean harreman berriak eta proiektu partekatuak egin ditzaten.

Topaketan, bertaratutako guztiak elkarrekin egoteko espazioak egongo dira, talde txikietan lan egiteko guneak, gaikako espazioak, norbera bere kabuz ibiltzekoak, harremanak sustatzeko guneak, espazio intimoak, sozialak, formalak, informalak, pasiboagoak, aktiboagoak, sortzaileak... betiere, elkarriketa eta parte-hartzea helburu izanik. Era berean, parte-hartzea presentziala izango da nagusiki, baina on-line bidezko parte-hartzeko aukera ere egongo da.

ORONA IDEO espazio ezinhobea da Hitzargiak Topaketarako. ORONA Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta ORONA IDEO hezkuntzako, erakundeetako eta alor sozioekonomikoko eragileen topaleku bihurtzea du helburu. ORONA Fundazioaren asmoa da ingurua hainbat alorretan (sozioekonomikoa, kultura, hezkuntza, gizartea eta kirola) garatzea.

hitzargiak TOPAKETA

Elkar argitzen duten hizkuntzak
Languages illuminating each other
Langues que se illuminent mutuellement
Des langues qui s'illuminent de l'une à l'autre

2016ko ekainaren 23-24
Orona Ideo, Hernani (Gipuzkoa)

EKAINAK 23, OSTEGUNA

08:30-09:00	HARRERA	
09:00-09:30	Hasiera-ekitaldia	
09:30-10:15	Hitzaldia: Europako Hizkuntza-aniztasunaz Xavier Vila . Bartzelonako Unibertsitatea, Mercator Research Center, HITZARGIAK - Batzorde Zientifikoa (Gaztelaniaz. Itzulpena.: Eus., Ing., Fr.)	
10:15-10:45	Hitzaldia: <i>Hitzargiak- Elkar argitzen duten hizkuntzak</i> proiektua Belen Uranga . Soziolinguistika Klusterra, HITZARGIAK - Koordinatzailea (Euskaraz. Itzulpena.: Gazt., Ing., Fr.)	
10:45-11:15	Kafea	
11:15-12:15	Mahai-ingurua: Ahozko ondarea: Hizkuntzen balioa hitzunen mintzoan <i>Ukaezina da ahozko ondorea jaso eta hedatzearen garrantzia hizkuntzen berreskuratze-prozesuetan. Gure hizkuntzek duten aberastasuna balioan jartzeko gune izan nahi du mahai-inguru honek.</i> Sarrera: Idola Etxebarría (Ahotsak) Nel Vidal [As Candongas] (Galiziera) Gordon Wells [Island Voices] (Eskoziako gaelikoa) Caroline Suss [Sammlé] (Alsaziera) Asier Sarasua [Ahotsak] (Euskara) (Eus., Gazt., Ing., Fr.: Itzulpena: lau hizkuntzetan)	
12:15-13:15	Mahai-ingurua: Haur-eskolak: hazi eta hezi, hizkuntza ardatz <i>Haurrei mundua deskubritzen laguntzeko erronka dute haur-eskolek, mundura irekita egoteko. Baina mundura irekita egoteko modu asko daude, eta horietako bat norbere hizkuntzatik egitea da, norbere hizkuntza ardatz harturik.</i> Sarrera: Jon Sarasua (Mondragon Unibertsitatea, HUHEZI fakultatea) Xosé Luís González Sende [Semente] (Galiziera) Xan Aire [Seaska] (Euskara) Nerea Inda [Haurreskolak partzuergoa] (Euskara) (Eus., Gazt.; Itzulpena: lau hizkuntzetan)	
13:30-14:45	Bazkaria	
14:45-15:45	Mahai-ingurua: Hizkuntzak garatzeko, teknologiak <i>Etengabe eta abiadura azkarrean ari dira garatzen teknologiak. Baita hizkuntzen arloan ere. Zein toki dute eta nola lagundu dezakete teknologiek hizkuntza txikien garapen eta hedapenean?</i> Sarrera: Maite Goñi (Mondragon Unibertsitatea) Caroline Suss [Application iYO] (Alsaziera) Juan Pablo Martínez [Softaragonés] (Aragoiera) Josu Aztiria [ElkarOlai] (Euskara) (Eus., Gazt., Ing., Fr.: Itzulpena: lau hizkuntzetan)	Mahai-ingurua: Transmisioa: Etxean nola, munduan hala <i>Hizkuntzak, komunikazio-tresna izatetik harago, norberaren eta komunitate-identitatearen erakitzeko bitarteko ere badira. Gure seme-alabei hizkuntza transmititzen diegunean, mundu oso bat erakitzeko aukera ere transmititzen diegu.</i> Sarrera: Iñaki Arruti (Lasarteko udala) Nel Vidal [Apego] (Galiziera) William Cislino [Cressi cun plui lenghis] (Friulera) Kadri Koreinik [Upa-upa] (Voro) Itziar Luri [Xaldun kortin] (Euskara) (Ing., Eus., Gazt.: Itzulpena: Ing., Eus., Gazt.)
15:45-16:45	Esperientzien truke-gunea	
16:45-17:45	Elkarrizketa: Hizkuntza txikien alde korrika <i>Festa eta aldarrikapenak ere badute txikiak hizkuntzen berreskurapenean. Beharrezkoak dira aldarrikapenak? Zein funtzio betetzen dute? Zein da egitasmo hauen arrakastaren gako nagusia?</i> Sarrera: Jakes Bortairu (AEK) Asier Amondo [Korrika] (Euskara) Katelin Al Lann [Ar-Redadeg] (Bretoiera) Marcas Mac Ruairí [Rith] (Irlandako gaelikoa) Begotxu Olalzoa [Ras] (Galesera) (Eus., Ing., Fr.: Itzulpena: lau hizkuntzetan)	Mahai-ingurua. Akademien eginkizuna hizkuntza gutxituen kasuan <i>Akademien rol nagusia da hizkuntzari dagokionean estandarizazioa eta arauak ematearena dira. Horretara mugatu behar du akademiak? Ala beste egiteko batzuk ere izan behar ditu hizkuntza gutxituen kasuan?</i> Sarrera: Erramun Osa (Euskaltzaindia) Henrique Montegudo [Portal das Palabras] (Galiz.) António Bárbo [Cumbençon] (Mirandesa) Sagrario Aleman [Euskaltzaindia] (Euskara) (Eus., Gazt.: Itzulpena: Eus., Gazt. Ing.)
17:45-18:00	Ekitaldi kulturala	

08:30-10:00

Mahai-ingurua: Hizkuntza ekonomiaren sustatzaile

Hizkuntza gubaituen normalizazio prozesuan urrats handia litzateke lan-munduan eragitea. Nola lortu lan-munduan eragitea? Badu balio erantsirik hizkuntza bikietan antzeko lan-munduan?

- Sarrera: **Anaje Narbaiza** (Elay)
Orlagh Ní Raghallaigh [Foras] (Irlandako gaelikoa)
Mirjam Vellinga [Afük] (Frisiera)
Rober Gutierrez [Bai Euskarari] (Euskara)
Jorge Gimenez [Bikain eta EUSLAN] (Euskara)
Ainhoa Irueta [Eika kooperatiba] (Euskara)

(Eusk., Ing.; Itzulpena: lau hizkuntzetan)

10:00-11:00

Elkarrizketa: Hizkuntzen garrantzia Lurralde Antolaketan

Azkenaldian hizkuntza- eta lurralde-antolaketaren inguruko erreferentzia asko ari gara entzuten. Nola eragiten dute lurralde-antolaketak eta hirigintzak hitun-komunitatearengan? Harreman hauen inguruan hausnartzeko aukera izango dugu.

- Sarrera: **Jon Mentxakatorre** (ARTEZ, Hitzargiak lantaldea)
Elisabeth Naclér [Aland] (Aland)
Miren Segurola [UEMA] (Euskara)
 (Eus., Ing.; Itzulpena: lau hizkuntzetan)

Mahai-ingurua: Heldu aroan hizkuntza ikastearen garrantzia

Ez da gauza bera hizkuntza haurtzaroan edo heldu aroan ikastea. Zergatik ikasten da hizkuntza bat heldu aroan?

- Sarrera: **Belen Uranga** (Soziolinguistika Klusterra, Hitzargiak lantaldea)
Joseba Erkizia [HABE] (Euskara)
Mertxe Mugika [AEK] (Euskara)
Mirjam Vellinga [Afük] (Frisiera)
 (Eus., Ing.; Itzulpena: Eus., Gazt. Ing.)

11:00-11:30

Kafea

11:30-12:30

Esperientzien truke-gunea

12:30-13:30

Elkarrizketa. Mintzapraktika: Buruz buru, ahoz aho

Hizkuntzak biziko dira baldin eta erabiltzen baditugu, horra hor gakoa. Hizkuntzen erabilera sustatzeko egitasmo ezberdinen inguruan hausnartzeko aukera izango dugu, eta egitasmo hauen arrakastarako gako izan diren elementuak identifikatzeko.

- Sarrera: **Pablo Suberbiola** (Soziolinguistika Klusterra)
Silvia Sanz [Voluntariat per llengua] (Katalana)
Ritxi Lizartza [Mintzanet] (Euskara)
Rocio Lucas [Mintzalagun] (Euskara)
 (Eus., Gazt.; Itzulpena: lau hizkuntzetan)

Mahai-ingurua. Jatorri anitzeko hitzunak, bertakora hurbiltzen

Geroz eta anitzagoa den gizarte batean bizi gara. Hizkuntza eta kultura baterantz jo nahi dugu, aniztasuna aberastasuna dela aldarrikatuz. Zeintzuk dira gizarte eredu inklusibo horretarako gakoak?

- Sarrera: **Amaita Rodriguez** (EMUN, Hitzargiak lantaldea)
Bernardo Penabade [Burela] (Galiziera)
Gina Codinach [Escola La Sinya] (Katalana)
Leire Diaz de Guereñu [Ramon Bajo] (Euskara)
 (Eus., Gazt.; Itzulpena: Eus., Gazt., Ing.)

13:30-15:00

Bazkaria

15:00-16:00

Mahai-ingurua: Komunikabideak, gizarte eleaniztunak eraikitzen laguntzeko

Irratiak, prentsa, telebista. Zein leku hartzen dute hizkuntzaren presentzia sozialean eragiteko?

- Sarrera: **Alberto Barandiaran** (Hekimen)
Inaciu Galán [Iniciativa pol asturiana] (Asturiera)
Anna Kościukiewicz [Radio Kaszëbe] (Kashubiera)
Kadri Koreinik [Uma Leht] (Voro)
Koldo Nagusia [Antxeta irrati] (Euskara)

(Eusk., Gazt., Ing.; Itzulpena: lau hizkuntzetan)

16:00-17:00

Mahai-ingurua: Antzokiak, aisiagune herritarrentzat, arnagune hizkuntzentzat

Kultura-zentroak ekimen zehatzen pizgarri izateaz gain badute komunitate osoan eragiteko gaitasuna. Nola lortzen da erreferentzialtasun kulturala hizkuntza minorizatuen kasuan?


- Sarrera: **Leire Muxika** (Kultura zerbitzuetako dinamizatzailea, EMUN)
Helen Thomas [Mentermon] (Galesera)
Xabier Monasterio [Kafe-antzokia] (Euskara)
Eibhlín Ní Dhochartaigh [Culturlann] (Irlandako gaelikoa)

(Eusk., Ing.; Itzulpena: lau hizkuntzetan)

17:00

ITXIERA

Antolatzaileak



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA



Babesle eta laguntzaileak

Orona fundazioa



Hitzargiak – Elkar argitzen duten hizkuntzak proiektua Europako hizkuntza-aniztasunaren alde arituko da lanean, Donostia / San Sebastian 2016 Europar Kultura Hiriburutzaren ekimen gisa.

Ezarrirako misio eta ikuspegi guztiekin bat egiteko, eta bere helburuak betetzeko, eragile eta pertsona askoren arteko elkarlana behar izan du proiektuak. Izan ere, Europako hizkuntzak biziberritzeko jardunbide egokiak identifikatzea, elkar ezagutzea, harremanetan jartzea eta sare iraunkor bat sortzea da izan da asmoa, hasieratik. "Prokomun" filosofiapean gauzatu da, eta, ondorioz, egitasmoaren barnean zenbait lantalde eratu dira: Partzuergoa, Batzorde Zientifikoa eta Proiektu-taldea, zeintzuek funtzio eta egiteko propioak izan dituzten, bai eta hori guztia koordinatu duen Jarraipen Batzordea ere.

Honako egitura hau antolatu da egitasmoaren ibilbidea diseinatu eta aurrera eramateko:

PARTZUERGOA



JARRAIPEN-BATZORDEA

- ▶ Asier Basurto (Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua)
- ▶ Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)

BATZORDE ZIENTIFIKOA

Euskal Herriko eta nazioarteko bederatzi adituk osatu dute talde hau:

- ▶ Larraitz Ariznabarreta, HUHEZI (Mondragon Unibertsitatea)
- ▶ Vicent Climent-Ferrando, NPLD eta Pompeu Fabra Unibertsitatea
- ▶ Araceli Díaz de Lezana, Eusko Jaurlaritza
- ▶ Durk Gorter, IkerBasque, UPV/EHU – DREAM Ikerketa Taldea
- ▶ Itziar Idiazabal, MHOK Unesco Katedra
- ▶ Jasone Mendizabal, Topagunea
- ▶ Erramun Osa, Euskaltzaindia
- ▶ Meirion Pris Jones, NPLD
- ▶ Xavier Vila, Bartzelonako Unibertsitatea, Mercator Research Center

LANTALDE TEKNIKOA



Soziolinguistika Klusterraren Bulego Teknikoa

Belen Uranga
Uxo Anduaga



Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

Nekane Arratibel



Artez Euskara Zerbitzua

Estiñe Astorkia
Jon Mentxakatorre



Emun Aholkularitza

Igone Bastarrika
Amaia Rodriguez
Eider Alustiza



Elhuyar Fundazioa

Oihane Lakar
Helene Armentia
Oihana Garcia
Manex Urruzola

